

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**297/2017 Foru Agindua, urriaren 25ekoa, Ingurumen eta Hirigintzako diputatuarena, Oion eta Moreda Araba udal-mugarteetako Labraza, Gorrebusto eta Moreda Araba zonako ureztatze lurrak hobetzeko proiektuaren ingurumen eraginaren aitortpenaren aldekoa, baldintza batzuk betez gero**

Ingurumen eta Hirigintza Sailak adierazten du Oion eta Moreda Araba udal-mugarteetako Labraza, Gorrebusto eta Moreda Araba zonako ureztatzea hobetzeko proiektua Valdepaderna Ureztatzaile Komunitateak sustatu duela. Proiektu hau sartuta dago 2012ko apirilean idatzitako "Arabako Lurralde Historikoan Ureztapenen Planifikazioaren arloko aurrerapen dokumentuan" aurreikusitako jardueren zerrendan eta Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saila da oinarritzko administrazio organoa.

Proiektuaren ezaugarriak direla eta, ingurumen eraginaren banakako ebaluazioaren prozedura izapidetu behar da nahitaez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen arabera.

Ebazpen honen oinarri den ingurumenaren txosten estrategikoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak eman du, 2017ko urriaren 16an.

#### 1. Proiektuaren azalpen laburra

Proiektuaren xedea da Gorrebusto, Labraza eta Moreda Araban ureztatzeko azalera modernizatu eta haztea; Oion eta Moreda Araba udalerrian 400 hektarea lirateke guztira eta 500.000 m<sup>3</sup>-ko ur beharra ebaluatu da. Horretarako, Buenpajera, Horcajo (2 hartune) eta Valdevarón (2 hartune) aldizkako errekek udazkenean, neguan eta udaberrian izaten duten jarioa aprobeztatuko da, uztailean, abuztuan eta irailean urik atera gabe. Ureztatu daitekeen zona Gorrebusto ea Labrazatik gertu dauden laboreen 550 kotaren eta Moreda Arabako ureztatzeko zonarik baxueneko 450 kotaren artean dago.

Ura hartzeko guneak 700eko kotan jartzea aurreikusten da, "El Coscojal" izeneko inguruan, 655eko kotan, doiketa urmael bat eraikitzeko asmoa baitago; urmaelak 286.000 m<sup>3</sup>-ko gaitasuna luke, 13 metroko garaiera eta gutxi gorabehera 6 hektarea hartuko lituzke. Erasandako sailaren zatirik handienean zereal finkak daude eta hein txikiagoan mahastia, landaredi naturalarekiko zati batzuk ere badauden arren. Urmaela indusketako berezko materialekin egingo litzateke eta 2 mm-ko lodiera duen polietilenoko lamina baten bidez iragazgaitzuko litzateke.

Hartunek eta urmaela lotzeko hodian luzera 6 kilometro ingurukoa izango dela aurreikusten da. Urmaletik grabitate bidez proiektatuko da PVCzko banaketa sarea, eta proiektuaren arabera 49.350 metroko luzera izango luke; sare horren forma bihurtunetsuari jarraituz bideak eta mugak egingo lirateke.

Ureztaketa urmaelari, hartuneei eta urmaelera arteko aldaketa hodie dagokienez, proiektuaren definizioa zehaztatua dago eraikuntza proiektu mailan; aldiz, ureztaketako bigarren mailako sarea ez dago hain zehaztuta eta oinarritzko proiektu mailako definizioa du, nahiz eta proiektu osoan zehatza adierazita egon okupazio eremuak eta ingurumen eraginak baloratzeko behar adinako zehaztapen maila izan horrek.

Ureztaketarako sistema egokiak direla uste da tanta-jarioa eta ihintzaketa, eta horiek oinarri hartuta egin dira ureztaketa hobetzeko dimentsionamendurako kalkuluak.

Proiektuak beste aukera batzuk ere hartu ditu kontuan, alderdi garrantzitsuagoi dagokienez. Adibidez, zehatz aztertu da urmael bat egin ordez bi egitea (El Coscojal eta Moncaletre), baina azkenean bakarra egitea erabakia da, eraginak puntu bakar batean piltzeko eta uste delako eragin globala askoz txikiagoa dela argi eta garbi. Gainera, "El Coscojal" inguruan doiketa urmael bakarra egitea erabaki ondoren, urmael horren kokapen zehatzerako zenbait aukera aztertu dira eta hartuneentzako ere bai; dena dela, beste errekek kontuan ez hartzea erabaki da, emaririk ez dutelako.

Urmaela kokatzeko eta hartuneak aurkitzeko irtenbideen edo aukeren bilaketan, Ingurumen interes handiko eta kalitatezko nekazaritza finkekiko zonetan okupazioa minimizatzeke irizpidea aukeratu da eta bigarren mailako sarearentzat edo ureztaketa sarearentzat aukeratutako diseinua jada badauden bide eta zorbideetara egokitzea aukeratu da, ondorioz, landaredi naturaleko zonetan ez delako eraginik izango eta horrela ingurumen eragina oso minimizatuko delako. Bigarren mailako sarearen beste trazatu batzuek ureztaketa eta banaketako bigarren mailako sarearen luzera murriztu egingo zuten, baina ingurumenean eta landatutako finketan eragin askoz handiagoa izango zuen.

Era berean, Ebro ibaitik ura hartzea eta punpatzea alde batera utzi da, garestiagoa delako eta zebra muskuiluak eragiten dituen inbasio arazoengatik. Bestalde, Arabako Errioxako eta Errioxako Sonsierrako Ureztatzaileen Komunitatean sartzeko aukera ere ez da kontuan izan; Komunitate honek Inglares ibaitik hartzen ditu urak eta ureztatzeko azalera oso handietarako arroen arteko aldaketa egiteko aukera baitu.

## 2. Proiektuaren eremuko ingurumen elementu nabarmenak

### 2.1. Landaredia:

Proiektuaren eremuan ohikoa da Europar Batasunaren lehentasunezko intereseko habitata 6220\* (Habitatak izeneko 92/43/EEE Zuzentarauak ezarritako kodearen arabera), *Thero-Brachypodietearen* eremu subbestepiko gramineoak eta urterokoak dituzten zonak; hau da, Habitatak 92/43/EEE Zuzentaruoko I. eranskinean jasotako albiziak edo *Brachypodium retusum* espezieko bazka xerofiloa. Bada Europar Batasunaren intereseko beste habitat motaren bat ere, baina azalera txikiagoa du; dena dela, EAEn kartografiatutako hiru espartzuditako bat nabarmendu behar da (sastraka halonitrofiloa, 1430 Europar Batasunaren intereseko habitata), izan ere, espartzudi hori Moreda Araba udalerriaren hego-ekialdeko muturrean dago. 9340 habitataren presentzia ere bada (*Quercus ilex* eta *Quercus rotundifolia* basoak) eta erkametz (*Quercus faginea*) dagoen zati edo azalera txikiak ere bai.

Era berean, intereseko baso autoktonoak daude, hala nola, ibai ertzeko lizardi mediterraneoak, errioxar abariztia eta erromerodiak.

Urmaela egin nahi den toki jakin horretan, 6,4 hektarea inguruko guztizko azalerarekin, zereala lantzen den saila okupatzea aurreikusten da eta hein txikiagoan mahastiak daudena, Mediterraneoko garriga orban edo zuhaitzi txikiren bat ere badagoen arren. Zuhaitz unada horien artean, arte nabarmen batzuk daude. Urmaela eraikitakoan erasango zaion guztizko landaredi naturala 7.000 m<sup>2</sup> inguru izango da.

Hodirik gehienak jada badauden trazatuei doituko zaizkie eta ura eramaten beste hodi batzuen zortasunei; dena dela, nekazaritzako laboreak dauden eremuetatik igaroko da kasu batzuetan eta landaredi naturala dagoen eremuetatik ere bai, oro har, zuhaixkak edo landaredi belarkara dagoen zonetatik igaroko da, Mediterraneoko garriga eta abariztia dagoen tokietatik.

Gutzira 26 zatitan jada badauden bideetatik kanpo planteatu dira hodiak; kasu horietan landutako sailetatik (mahastiak, arbendolondoak eta olibondoak) eta landaredi naturaleko zonetatik igaroko dira. Sustatzaileak aurkeztutako "Habitaten ezaugarriak" agiriaren arabera, ureztatzeko hodian instalazioaren ondoriozko erasana 13.057 m<sup>2</sup> inguruko okupazioa izango da (arbendolondoak, mahastiak eta zereal sailak barne) eta horietatik 3.778 m<sup>2</sup> dira Europar Batasunaren lehentasunezko intereseko habitatak (*Brachypodium retusum* bazka xerofiloak).

Doiketa urmaelaren okupazioaren eraginari dagokionez, guztira 6,4 hektareako saila hartuko du; horietatik 5,7 lantzen direnak dira eta Europar Batasunaren lehentasunezko intereseko habitatak dira 3.491 m<sup>2</sup>. Ura hartzea aurreikusten den eremuetako eraginei dagokienez, sailaren okupazioa kontuan izanez gero oso eragin txikiak dira, baina ingurumen ondorioetarako oso eremu sentsibleak.

Beraz, urmaela egitearen ondorioz landaredi naturalean egongo litzatekeen eragina, hodiak eta beharrezko hartuneak gehituz gero, landaredi naturalak hartutako ia 3,5 hektareakoa litzateke guztira, gehienak belarkarez eta zuhaixkez estaliak. (Oharra. EUNIS habitaten kartografiaren arabera eskura dagoen azalera zifra hori baino apur bat txikiagoa da, baina kartografia horretan identifikatu gabeko eremu batzuk landa lanaren bidez egiaztatu dira.)

Beren balio naturalak oinarri hartuta katalogatutako espazioetan izango duen erasanaren alderdirik garrantzitsuenetakoan azpimarratu beharra dago Valdevarónetik betetzeko hodiak Dueñaseko pinudiarekin muga egiten duela, eta eremu hori LAGen Interes Naturalistikoko Area da eta EAEko Naturagune Garrantzitsuen Katalogo Irekian dator. Dena dela, proiektuak ez du erasanik egungo pinudian eta aurreikusitako eboluzioan ere ez.

## 2.2. Lurrazaleko sare hidrografikoa:

Urmaela betetzeko planteatu diren hartuneak hiru errekan proiektatu dira: Buenpajera, Horcajo (2) eta Valdevarón (2), eta beren kokapen zehatza aurreikusi da esku hartuta edo antropizatuta. Urmaeleraino ura eramateko hodiekin 11 aldiz gurutzatzen dituzte erreka hauek. Banaketa sareak, gainera, eragina du lizar-zumar habitatez estalitako ibai ertzeko eremuetako bi gurutzaketatan. Paso bakoitzak erasana izango du landaredi naturalean eta 240 m<sup>2</sup>-ko azalera izango dela uste da erasandakoa.

Hartuneak eta hodiak jartzeko beharrezko erretanak egiteko obretan zuhaitz autoktonoak dauden eremuak ez okupatzen saiatuko da.

Ureztaketa honen hobekuntzak berekin du partzelen egungo emakida partikularrak batzea. Gaur egun batez ere udan hartzen da ura, beraz, proiektua abian jarritz gero, lehorterik handieneko aldietan ubideetan presioa murriztu egingo dela uste da. Hori dela eta, erasandako hiru erreken emarrietan aldeko eragina izango da.

## 2.3. Mehatxatutako flora eta fauna:

Proiektuko eremuan UTM lauki batzuk deskribatu dira EAEko Flora Baskular Mehatxatuan dauden espezieekin, bereziki, *Thymus loscosii* eta *Convolvulus lineatus*. Dena dela, okupazioaren eremu zehatzetan ez da espero espezie hauetako landareetan erasanik izango denik.

Aurrez azaldu bezala, garriga, abarizti edo erkametz sailtako biotopoen edo landare komunitateen duen eragina oso txikia da eta ondorioz, basoko faunan dituen ondorio negatiboak ere txikiak dira.

Buenpajera, Horcajo eta Valdevarón errekek erabat lehortzen dira hilabete batzuek eta ez dute uretako faunarik. Dena dela, urmaela betetzeko ura emari handieneko hilabeteetan hartuko da, eta ingurumen eraginak txikitu egingo dira horren ondorioz.

## 2.4. Pasabide ekologikoak:

Proiektuaren eremua bat dator Arabako Lurralde Historikoko konektagarritasun ekologiko eta paisajistikokoaren estrategiak proposatutako pasabide batekin (Arabako Foru Aldundiaren ingurumen zuzendaritza. 2005eko abendua).

EAEko Pasabide Ekologikoen Sareko elementuekin ere bat dator (Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko biodibertsitateko zuzendaritzarentzat egindako proposamena.) Kantauri mendizerra – Dueñasko pinudia lotzen dituen pasabidea eta Gorrebusto eta Valdevarón interes bereziko ubide zatiak lotzekoa nabarmentzen dira.

Dena dela, hobi gehienak ibilbidean zehar dauden bideetan edo landutako finketan sartuko dira eta horrek interes naturaleko landaredia dagoen espazioen okupazioa txikitu egingo du konektagarritasun funtzioaren ondorioz. Proiektuan aurreikusita dauka landaredi naturalarekin gurutzatzen diren eremu guztiak zehatz-mehatz lehengoratzea.

#### 2.5. Nekazaritzako lurzorua:

Aurrez adierazi bezala, hodian trazatua diseinatzeko erabilitako irizpidea mahastiak edo beste labore batzuk dituzten nekazaritzako finken okupazioa minimizatzea izan da; ondorioz, aldaketako eta banaketako sarea batez ere jada badauden bideetatik egingo da. Nekazaritzako lurren okupazioagatiko eraginik handiena "El Coscojal" eremuko urmaela egitean izango da, lantzen diren lurren 5,7 hektareatan erasana izango baitu; horietatik 5 hektareatan neguko zereala egiten da eta gainerakoan mahastiak daude.

#### 2.6. Arabako Lurralde Historikoko paisaia berezien eta bikainen katalogoa:

Proiektuaren eremua bat dator 29. zenbakidun paisaia bikainarekin "Labraza eta Dueñasko pinudia"; Arabako Lurralde Historikoko paisaia berezien eta bikainen katalogoan sartuta dago (2005eko irailaren 27ko 829/2005 Diputatuen Kontseiluko Akordio bidez onartua). Dena dela, aurrez esan da pinudian eta inguruko landaredi naturaleko zonetan ez dela eragin esanguratsurik espero.

"El Coscojaleko" urmaelaren kokapena lekoratik ikusi egiten da, nahiz eta herrigunetik 2 kilometro baino apur bat gehiagora egon. Balizko behatzaileen kontzentrazio handiko inguruko beste zonei dagokienez, zona horietatik gutxi ikusten da.

#### 2.7. Beste irudi batzuk:

Proiektuak ez du erasanik Natura 2000 Sarean, ezta Euskal Herriko Natura Babesteko 16/1994 Legearen babesean dauden beste naturguneetan ere eta espezieen interes bereziko areetan ere ez (Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan, Ramsar hezeguneetan eta EAEko hezeguneen lurralde plan sektorialean inbentariatutako hezeguneetan).

#### 3. Ingurumen eraginaren azterlanaren norainokoa zehazteko aurretiazko kontsulten fasea

Ingurumen eraginaren ebaluazioaren markoan, 2014ko ekainaren 10ean, "erasandako herri administrazioei eta pertsona interesatuei kontsultak" fasea egin da. Jarraian, fase honetan kontsultatuak izan ziren organismo, erakunde eta elkarten zerrenda agertzen da; era berean, zerrendan zehazten da zeintzuek eman zuten erantzuna:

URA – Uraren Agentzia	√
Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza	
GAIA elkarte	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkarte	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	√
Gorrebustoko Administrazio Batzordea	
Labrazako Administrazio Batzordea	
Moreda Arabako Administrazio Batzordea	
Oiongo Udala	
Moreda Arabako Udala	

SEO Bird Life	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Museo eta Arkeologia Zerbitzua	✓
Arabako Foru Aldundiko Ur Zerbitzua	✓
Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	✓
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	✓

Egindako kontsultei erantzunez jasotako txostenen laburpena dago jarraian (txostenen kopia osoa Arabako Foru Aldundiren Ingurumen Jasangarritasun Zerbitzuaren 13/403 espedientean eta egoitza elektronikoan [http://www.araba.eus/cs/Satellite?c=DPA\\_Generico\\_FA&cid=1224009749591&language=es\\_ES&pageid=1223997813771&pagename=DiputacionAlava%2FDPA\\_Generico\\_FA%2FDPA\\_generico](http://www.araba.eus/cs/Satellite?c=DPA_Generico_FA&cid=1224009749591&language=es_ES&pageid=1223997813771&pagename=DiputacionAlava%2FDPA_Generico_FA%2FDPA_generico)):

- Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren ustez, urmaela egiteko proposatu den tokian hondar arkeologikorik dagoenik ez dakite gaur egun, eta zona horretako ikerketen mugen eta gabezien ondorioa izan daiteke hori. Obrak egin aurretik azterketa arkeologiko bat egin behar dela uste dute, prospekzio arkeologikoa eta proiektuaren eragin arkeologikoaren azterketa, balizko babesteko eta zuzentzeko neurriekin. Lur mugiketen kontrol arkeologikoa egin beharko litzateke obrak dirauten bitartean, zerbait egonez gero aurkitu ahal izateko; eta obra egin ondoren esku hartzearen emaitzen memoria bat egiteko hertsatzen da.

Txostenean adierazten denez, jarduera edo gainbegiratze arkeologikoa obraren aurrekontuan sartuta egon beharko litzateke eta Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak behar bezala baimendutako profesional batek zuzendu behar luke.

- Ondare Historiko Arkitektonikoaren Zerbitzuak bere alegazioan dio, proiektua garatzea aurreikusitako eremuan ondare historiko arkitektonikoko elementuak daudela eta ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuak erasanda dagoela inguru hori, zeinaren bidez Arabako Errioxako ardoaren eta mahastien paisaia kulturala monumentu multzo kategoriarekin kalifikatu zen.

- Ihobek dio eremuan industria erabilerak historikoki jasan dituzten lurzatiak daudela. Hori dela eta, inbentarioan jasota dagoen kokalekuren batean jarduketa hasi baino lehen, lehenik eta behin, lurzoruaren kalitatea azter dadila eskatu behar da, ezarritako erabilerak aintzat hartuta, dena delako lurzatiko erabilera berriko langileentzat eta erabiltzaileentzat lurzoruaren kutsadurari lotutako arriskurik ez dagoela bermatzeko helburuz, eta bigarrenez, utzitako hondakin, eraikin eta hondeatzen diren lurren kudeaketa egokia egin dadila, hondakinen arloan indarrean dagoen legeriari jarraiki.

- Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak Ingurumen Eraginaren Azterlanean eta ingurumen ebaluazioaren prozedurako fase hauetan kontuan izateko alderdi batzuk aipatu ditu:

- Emaria kentzearen ondoriozko eraginaren azterlan sakonagoa egiteko beharra.
- Proiektu honetakoak ez bezalako ateratzeak kontuan hartu.
- Emari ekologikoen kalkulua.
- Zaintza programa: emari ekologikoen bermea.
- Eraginak identifikatzeko informazio gehigarria.
- Jarduketan zatiaren identifikazio grafikoa.
- Materialen balantzea.
- Intereseko landaredian duen eragina: 6220\* habitata, ibai ertzeko lizardi mediterranea, errioxar abariztia eta erromerodiak. Lurgorrien konpentsaziozko lehengoratzea.
- Flora (*Thymus loscosii*, *Pinus halepensis*) eta fauna espezieen balizko eragina.

- Pasabide ekologikoetan eragina.
- Zebra muskuilua hedatzeko arriskua.
- Paisaian integratu, ezpondaren oinetan zuhaitz espezie autoktonoak landatuta.

• Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen zuzendaritzak adierazi du bere alegazioen txostean, urmaelak erasandako zonan ez dagoela Kultura Ondareko elementurik, baina bai ureztatze sarearen eremuan Moreda Arabako udal mugartean (San Cristóbal, Santa María, Perezuelas eta Santa Eufemia). Obren burutzapenak zona horietan eraginik izango duen aztertu behar da, eta eraginen bat izanez gero, Usteko Arkeologia Zonen aitortpenean adierazitako ezarri.

Dena dela, aurreikusitako obrak nolako diren kontuan izanda, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen zuzendaritzak gomendatzen du lanen jarraipen arkeologikoa egiteko.

• Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza zuzendaritzak adierazi du AFAko Nekazaritza Sailak ureztaketa modernizatzeko dituen estrategien barruan dagoela jarduketa eta nekazaritza sektorea mantentzeko eragin positiboa izango duela. Ureztatzea hobetzea planteatu den 400 hektarearen zatirik handiena balio estrategiko handikoa da EAEko nekazaritza eta basoak zaintzeko LPSren zonifikazioaren arabera, eta mahastiak Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuak babestutakoak dira.

Urmael bakarra egitea eta grabitatearen bidez ureztatzeko aukera egokia dela uste du eta horren ordez Ebro ibaitik ura hartu eta punpatzea ekonomikoki garestiagoa litzatekeela ere uste dute, ez hain jasangarria izateaz gain eta arazoak ekarriko lituzke zebra muskuiluaren arazoaren ondorioz.

Nekazaritza zuzendaritzak adierazi du herriak ureztaketarekin hornitzea ere kontabilizatu behar dela. Geruzarik emankorrenek balio agrologikoa zaintzeko neurriak hartzeko beharra adierazi du.

Zuzendaritza honek jakinarazi du landa bideen alorrean dagokion araudia bete beharko dela, bide horietan sartu nahi baitira ura atera eta banatzeko hodiak eta Nekazaritza Zuzendaritzako Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren baimena beharko da.

• URA- Uraren Euskal Agentziak aztertzeko alderdi batzuk adierazi ditu:

– Zehatz definitu behar da urez hornitzeko hartuneen kokapena, deribazio noriak, betetzeko eta banatzeko hodiaren gurutzaketak eta jabari publiko hidraulikoan duten eragina.

– Obrako bide osagarrien azalpena, horrelakorik aurreikusi bada, eta obrako instalazio osagarriena ere bai.

– Obran ura hartu eta isurtzeko baldintzak.

– Arrain eta karramarro komunitateei buruzko berriazko azterketa egiteko beharra.

– Neurri zuzentzaile batzuk ere sartu dira, esekita dauden solidoen eta nahigabeko isurketen ondoriozko kutsadura saihesteko.

– Gogorarazten da, indarrean dagoen araudiaren arabera jabari publiko hidraulikoan nahiz bere zortasun eta polizia zonetan egiten den jarduketa oro eta uren eta edozein isuriren aprobetxamendua egiteko aurrez administrazioaren baimena beharko dela eta Uraren Euskal Agentziaren lurralde bulegoan izapidetu beharko dela.

• Arabako Foru Aldundiko Uren Zerbitzuak adierazi du Arabako Errioxako Uren Partzuergoari kontsultatu behar zaiola proiektuak balizko interferentziarik baduen ur hornidura sarean altan eta bajaran.

#### **4. Ingurumen eraginaren azterlanaren norainokoa zehazteko kontsultak igortzea. Arabako Foru Aldundiko ingurumen organoaren aurretiatzko diseinu baldintzak**

Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuaren 2015eko apirilaren 14ko txostena igorri zitzaion aurrez egindako kontsulten sustatzaileari, proiektuaren eta ingurumen eraginaren azterlanaren definizioan kontuan izateko. Era berean, txosten honen bidez inguru fisiko-biologikoan izango diren eraginik garrantzitsuenen balorazioa egingo da, baloratu egingo da sustatzaileak planteatutako irtenbideek ez dutela eragin kritikorik sortzen, eta garrantzitsuenentzat hartu dira landaredian, paisaian, basa faunan, azaleko hidrologian eta landaketa lurra okupatzeagatik gertatuko lirakeenak.

Arabako Foru Aldundiko ingurumen organoaren txostenean ureztaketa hobetzeko proiektuak erasango lukeen eremuko ingurumen balioak eta merituak aztertu dira, besteak beste, ingurumen eraginak, eta kontuan hartu beharreko neurri babesle eta zuzentzaile batzuk adierazi dira. Era berean, proiektua definitzerakoan kontuan izan beharreko ingurumen arloko irizpide hauek ere aipatzen dira:

- Landaredi autoktonoa zaindu: Abariztia, garriga, ibai ertzeko espezieak eta, bereziki, erkidegoko interes katalogazioa duten habitatak, proiektuaren eremuan larre eta ezpondetan daudenak. Horretarako:

- Urmaelen kokapenak formazio horiek okupatzea saihestuko dute edo ahalik eta gutxien okupatuko dituzte.

- Beharrezko sarbide berriak eta hodiak jada badauden bideetatik edo landutako lurretatik igaroko dira.

- Erreketako hartunek ahalik eta luzerarik txikiena hartuko dute ibai ertzean.

- Landaredi natural autoktonoak estali gabeko azaleretan aldi baterako bilketak egiteko kokapenak planifikatuko dira.

- Landaredia suntsitzea ezinbestekoa denean, lanerako berariazko teknika bat erabiliko da, ahalik eta okupaziorik txikienakoa, eta proiektuaren baldintzen pleguan azalduko da teknika hori.

- Ibai eta erreketako eragina txikitu, dela ibilgu eta oheetan, dela ertzetan:

- Gurutzaketak saihestu, jada badauden azpiegiturak aprobetxatu eta lehentasuna eman kalitate ekologiko txikiagoko tokietan gurutzaketak egiteari.

- Jabari publiko hidraulikotik aldendu hartunetik urmaelerako hodiak.

- Eraginik txikieneko eraikuntza teknikak erabili (airean gurutzatu, sartu, dauden zubi edo azpiegiturei erantsita jarri hoditeria...).

- Suntsitutako landaredi naturala lehengoratu eta konpentsatu. Ureztaketa proiektuarekin batera Ingurumen zaharberritzeari eta Paisaian integratzeari buruzko berariazko proiektua egin beharko da.

- Aurreikusitako neurri babesleak, zuzentzaileak eta konpentsatzaileak eta emandako jarraibideak betetzen direla bermatzeko sistema bat ezarri (ingurumen zaintzako programa).

- Kontratatu beharreko obren proiektuan deskribatu ingurumen arloko preskripzio guztiak, aurrekontua eta baldintzen plegua barne.

- Proiektu berriak ordezkatzeko dituen azpiegiturak kendu.

#### **5. Ingurumen eraginaren azterlanari eta proiektuari buruzko kontsulten eta jendaurreko informazioaren fasea**

Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen eta Hirigintza Sailen iragarkiaren bidez (ALHAO, 2016ko ekainaren 27a), Zuazo Ingenieros, SL-k idatzitako agiri hauek jendaurrean jarri ziren:

- Oion eta Moreda Araba udalerrietako Labraza, Gorrebusto eta Moreda Araba zonako ureztapena hobetzeko proiektuaren lehenengo fasea. Urmaela eta ura lekualdatzeko hodiak.
- Oion eta Moreda Araba udalerrietako Labraza, Gorrebusto eta Moreda Araba zonako ureztapena hobetzeko proiektuaren bigarren fasea. Banaketa sareari buruzkoa da.
- Ingurumen eraginaren azterlana.
- Ingurumen eraginaren azterlanaren eranskina.

Jendaurrean jartzearekin batera, erasandako herri administrazioei eta interesa zuten pertsoneri kontsultatu zitzaizen berriro, eta jarraian daude erantzuna jaso zen sektoreko administrazioak zein izan ziren:

URA – Uraren Agentzia	√
Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza	√
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza	
GAIA elkarte	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkarte	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	√
Gorrebustoko Administrazio Batzordea	
Labrazako Administrazio Batzordea	
Moreda Arabako Administrazio Batzordea	
Oiongo Udala	
Moreda Arabako Udala	
Arabako Kontzejuen Elkarte	
SEO Bird Life	
Arabako Errioxako Urkidetza	
Ebroko Ur Konfederazioa	√
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Museo eta Arkeologia Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua (Ura)	
Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	√

Egindako kontsultei erantzunez jasotako txostenen laburpena dago jarraian (txostenen kopia osoa Arabako Foru Aldundiren Ingurumen Jasangarritasun Zerbitzuaren 13/403 espedientearen eta webgunean [http://www.araba.eus/cs/Satellite?c=DPA\\_Generico\\_FA&cid=1224009749591&language=es\\_ES&pageid=1223997813771&pagename=DiputacionAlava%2FDPA\\_Generico\\_FA%2FDPA\\_generico](http://www.araba.eus/cs/Satellite?c=DPA_Generico_FA&cid=1224009749591&language=es_ES&pageid=1223997813771&pagename=DiputacionAlava%2FDPA_Generico_FA%2FDPA_generico)):

- Eusko Jaurlaritzako nekazaritza eta abeltzaintza zuzendaritzak dio bere txostenetan, ureztaketa hobetzeak eragin positiboa izango duela sektorean eta proiektatutako azpiegituraren hodiekin badauden trazatuak aprobetxatzen dituztela (bideak, mugak, etab.). Urmaela eraikitzearen eta hodian ondoriozko okupazioak eraginak izan ditzake badauden nekazaritzako ustiapenetan eta ingurumen eraginaren azterlanean ez dira kontuan izan.



Zuzendaritza honek dio, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legeari jarraikiz, nekazaritzako lurzorua babestea dela helburuetako bat. Hori horrela, proposatutako azpiegitura hidraulikoak nekazaritzan izango lukeen eragina kontuan izan behar da, eta oinarritzko elementua izango da balio estrategiko handiko eta trantsizioko landa paisaiako lurzoruak hartzen dituzten landa lurzoruen okupazioa. Horretarako, EAEko nekazaritza eta basozaintzako LPSn ezarritakoa hartuko da kontuan, "Planak ezartzearen eta obrak edo jarduketak egitearen ondorioz nekazaritza sektorean izango den eraginaren ebaluazioa" dela eta.

- Arabako Foru Aldundiko nekazaritza zuzendaritzak, ingurumen organoak eskatuta eta Eusko Jaurlaritzako nekazaritza eta abeltzaintza zuzendaritzaren alegazioa artatuz, nekazaritza sektoreko eraginaren azterlana egin zuen eta ondorioztatu zen Labraza, Gorrebusto eta Moreda Araba zonako ureztaketa hobetzeko proiektuak sortutako eragina "bateragarria" dela nekazaritzako lurzoruaren okupazioarekin eta nekazaritzako ustiapenetan izan dezakeen eraginarekin oro har, nahiz eta hiru ustiapenetan izango duen eragina "moderatu" izango den. Eragin hauek gutxitzeko neurri zuzentzaile gisa, erasandako nekazaritzako hiru ustiapenetan erasandako gune guztietara sarbide egokia bermatzeko egin beharrekoak proposatzen dira, ustiapen horietako eragina "moderatu" izango dela baloratu baita. Sarbide hori esku hartzearen aurretik zeuden baldintza berdinetan egin beharko da, ustiapenetako gune guztietan nekazaritza jarduerarekin jarraitzeko behar diren dimentsio eta ezaugarrietako bideak izan beharko dira.

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaritzak adierazi du bere txostenean ingurumen eraginaren azterlanak gabezia garrantzitsu batzuk dituela obrek erasandako landaredi naturalaren azalerei dagokienez. Beharrezkoa da kuantifikatzea Europar Batasunaren intereseko habitaten eta Europar Batasunaren lehentasunezko habitaten azalera, natura ondarean ez dela galera garbirik egongo bermatzeko neurri zuzentzaileak hartu beharra ote dagoen zehaztu ahal izateko.

Gainera adierazi du proposatutako lehengoratzea ezin dela onartu neurri konpentsatzaile gisa, Ingurumen eraginaren azterlanean zehazten den bezala. Proposatutako birlanaketa motak zero balantzea ez duela ahalbideratzen baloratu da, izan ere, sustatzaileak egindako proposamenarekin natura ondarearen galera garbia egongo litzateke. Beraz, zuhaixka eta zuhaitz espezie autoktonoekin egin behar dira landaketak, artadiak eta erkameztiak eta horien eboluzioko zuhaixka etapak berreskuratzeke, *Brachypodium retusum* bazka xerofiloen habitat belarkarez gain. Bestalde, basa faunan eragin txikia egongo dela uste da.

- Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak adierazi du ureztaketa hobetzeko proiektuak ez duela erasanik kultura arloko legediak babestutako inongo elementu higiezinetan edo planeamenduko arau subsidiarioen katalogoak babestutakoetan. Beraz, Zerbitzu honen eskumenen arlotik ez dago inolako oztoporik proiektu hori izapidetzeko.

- Ihobek dio eremuan industria erabilerak historikoki jasan dituzten lurzatiak daudela. Hori dela eta, inbentarioan jasota dagoen kokalekuren batean jarduketa hasi baino lehen, lehenik eta behin, lurzoruaren kalitatea azter dadila eskatu behar da, ezarritako erabilerak aintzat hartuta, dena delako lurzatiko erabilera berriko langileentzat eta erabiltzaileentzat lurzoruaren kutsadurari lotutako arriskurik ez dagoela bermatzeko helburuz, eta bigarrenez, utzitako hondakin, eraikin eta hondeatzen diren lurren kudeaketa egokia egin dadila, hondakinen arloan indarrean dagoen legeriari jarraiki. Era berean, adierazi da proiektuak erasan dezakeen inguruan badela "Araztegi publiko ez aktiboak II. Fasea - Araba" zizeneko espedientean dagoen eremu bat (espedientea kontsultatzeke, ingurumen administrazioeko zuzendaritzara jo behar da – lurzoru kutsatuen areara).

- URA Ur Agentziak dio sustatzaileak aurkeztutako agirietan ez dela zehazten obrak egiteko bide osagarriak beharko ote den. Obrako instalazio osagarriak non kokatuko diren ere ez da adierazten. Horri buruz adierazi du, zortasun eremutik kanpo kokatu beharko direla beti, ura etorritz gero erasango ez diren areetan eta ibai ertzetako landaredia errespetatu beharko da; zortasunaren gutxieneko zatiak seinaleztatu beharko dira ubidetik 5 metrora egoera naturalean eta libre, seinaleztatzeke zinten bidez balizatuta.

URAK uste du obrak batez ere udako hilabeteetan egin beharko liratekeela, batez ere hartuneetan eta erreketan aurreikusita dauden hamabi gurutzaketetan, horrela ubide eta ertzetan eraginak saihestuko bailirateke. Era berean, eremu hauetan lehengoratzeko neurri zehatzak hartu beharko direla adierazi du.

Obrak egiteko inguruko ubideren batetik ura hartu behar izanez gero, aurrez eskatu beharko da baimena. Gainera, URAK adierazi du inondik eta inora ere ezingo dela ubideak zuzentzeko eta kanalizatzeko jarduerarik egin, ez da zeharkako drainatzea duen lubetarik erabiliko ura dagoen tokietan gurutzaketak saihesteko eta hainbat ubide ez iraunkorretako drainatzeak ez dira kontzentratuko egitura bakar baten bidez.

Amaitzeko, URAK gogorarazi du, uren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera, jabari publiko hidraulikoan eta bere zortasun eta polizia zonetan egiten den jarduketa oro eta uraren aprobetxamenduak eta edozein isurketa egiteko aurrez administrazioaren baimena beharko dela, eta zehatz aztertuko dira obren ezaugarriak eta eraginak jabari publiko hidraulikoari dagokionez eta, dagokionean, behar diren preskripzioak ezarriko dira.

• Ebroko Ur Konfederazioak informazioa jendaurrean jarri den fase honetan eta 2016ko abenduaren 21ean Arabako Foru Aldundira igorritako txosten baten bidez (ingurumen azterlanen zerbitzuko buruak eta ingurumen kudeaketako zerbitzukoak sinatua) adierazi du proiektuaren sustatzaileak baimen batzuk eskatu behar dituela Estatuko Administrazio Hidraulikoan, ingurumen eraginaren aitorpena egin ondoren.

Ingurumen eraginaren ebaluazioari dagokionez, Konfederazioak uste du sustatzaileak eskaintako informazioarekin ezin direla behar bezala baloratu jarduerak inguru hidrikoan izan ditzakeen eraginak. Ingurumen eraginaren azterlanak zehatzago azpimarratu beharreko puntu hauek aipatzen ditu Konfederazioak bidalitako txostenak:

– Jarduketa eremuko inguru hidrikoaren azalpena (lurrazaleko eta lurpeko urak) eta ureztaketa hobetzeko proiektuaren ondorioz horietan egongo liratekeen erasanik handienen garapena.

– Inguru hidrikoan egongo liratekeen erasanen identifikazioa eta azterketa. Azterketa hau zehatza izango da, ahal dela, bereziki emariak atera, azaleko jariatzeetan gorabeherak eragin edo ureztaketako soberakinen ondorioz sailean egon daitezkeen iragazteei dagozkien jarduketan ondoriozko eraginen alorrean. Isurketen eta ura hartzen duten gorputzen arteko balizko elkarreaginak ere kontuan izango dira, eta indarrean dagoen uren araudian oinarritutako kalitatezko estandarrak erabiliko dira.

– Obren fasean azpisistema hidrikoan egon daitezkeen eraginak identifikatu eta aztertu (nahi gabeko isurketak, uraren kolorea ilundu, harriak eraman...).

– Ustiapen fasean azpisistema hidrikoan eraginak txikitzeko aurrez hartu daitezkeen neurri guztiak, zuzentzaileak edota konpentsaziozkoak planteatu, nekazaritzako praktika onen kodea ezarri, ureztatzea eta ongariak behar bezala erabiliz eta une oro lurrazaleko eta lurpeko uren kalitatea bermatuz.

– Perezuelas ibaiko uren kalitatea aldiro kontrolatzea sartu Ingurumen Zaintzako Programan.

Ingurumen eraginaren azterlana aztertu ondoren eta eskumendun organoak arlo hidraulikoan adierazitako gabeziak kontuan izanda, Arabako Foru Aldundiko ingurumen organoak txosten bat egin eta bidali zuen 2017ko otsailaren 7an eta txosten horretan adierazten zen Ebroko Ur Konfederazioko ingurumen kudeaketa arloak adierazitako gabeziak konpondu beharra zegoela eta horretarako ingurumen eraginaren azterlanaren eranskin bat aurkeztu behar zela, zegozkion agiri osagarriekin.

Valdepaderna ureztatzaileen komunitateak, eskari horri erantzunez, 2017ko irailaren 13an ingurumen eraginaren azterlanaren eranskin berri bat igorri zuen agiri osagarriekin eta "Ureztaketa eremuko EUNIS habitaten eta Europar Batasuneko intereseko ezaugarriak" izeneko dokumentu bat ere bai. Foru Aldundiko ingurumen organoak hala eskatuta, ingurumen eraginaren azterlanaren eranskin honek erantzun zituen, era berean, Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak bere alegazioen txostenean adierazitako gabeziak.

Sustatzaileak erantsitako agiritan (Ingurumen eraginaren azterlanaren III. eranskina), ureztaketaren xedeari eta sistemari buruzko informazio gehigarria eskaini zen, zehatzago deskribatu zen eragina izan dezakeen inguru hidrikoa eta hartuneetan, urmaelean eta ureztaketa areako erreken gurutzaketetan inguru hidriko horrek izango dituen eraginak aztertu ziren. Era berean, landaredi naturala eta laboreak dauden zonetako eraginaren azterlana ere badago, ingurumen zaintzako programa bat zehaztu da eta ureztaketako laboreak ustiatzeko baldintzak ere bai, ongarrizteari eta landaketako beste praktika batzuei dagokienez. Gainera, neurri babesle eta zuzentzaile gehiago ezarri dira, dagokien aurrekontuarekin.

Era berean, sustatzaileak aurkeztu duen agiriak, "Gorrebusto, Labraza eta Moreda Araba zonako ureztaketa hobetzeko proiektuaren okupazio areako EUNIS habitaten eta Europar Batasuneko intereseko ezaugarriak" delakoak, banaketa sarea errepide saretik kanpo doan 26 zatiak aztertzen ditu eta identifikatutako zati horien ezaugarrien berri ematen du, habitat naturaletatik edo landutako eremuetatik igaroko baita sarea zati horietan. Azterlan honetan urmaela eta hartuneak aurreikusi diren arean habitat hauek izango duten okupazioaren kuantifikazioa ere badator.

"Habitaten ezaugarriak" agiriaren arabera, hodi sarearen instalazioaren ondoriozko erasana 13.057 m<sup>2</sup> inguruko okupazioa izango da (arbendolondoak, mahastiak eta zereal sailak barne) eta horietatik 3.778 m<sup>2</sup> dira Europar Batasunaren lehentasunezko intereseko habitatak (*Brachypodium retusum* bazka xerofiloak). Doiketa urmaelaren okupazioaren eraginari dagokionez, guztira 6,4 hektareako saila hartuko luke; horietatik 5,6 lantzen direnak dira eta Europar Batasunaren lehentasunezko intereseko habitatak dira 3.491 m<sup>2</sup>. Hartuneetako eremuetako eraginak askoz txikiagoak lirakeke, baina ingurumen ondorioetarako sentsibilitate handiko eremuak dira. Azterlan horren beraren arabera, zuhaixka edo zuhaitz autoktonoekiko formazio naturaletan izango lukeen eragina 4.099 m<sup>2</sup>-koa da.

Katalogatutako habitatetan izango litzatekeen eragina oso txikitat bezala baloratuta dago sustatzaileak aurkeztutako agirian, ez baitu eraginik azalera handietan eta eskualdean erasandakoak bezalako habitat ugari baitaude. Erasan daitezkeen eremu horietarako guztietarako, ingurumen eragina zaindu eta zuzentzeko neurriak aurreikusi dira proiektuan eta neurri horien aurrekontua ere egin da.

## 6. Ondorioak

Arabako Foru Aldundiko ingurumen organoaren iritziz, proiektuaren ondorioz ingurumenean izango diren eraginak moderatuak izango dira landaredian, paisaian eta sare hidrografikoan; aurrez azaldutako ingurumeneko beste elementu batzuetan izango diren ondorioak txikiagoak izango dira, baina dena dela neurri zuzentzaileak eta babesleak hartu behar dira eta bereziki landarediari dagokionez neurri konpentsatzaileak.

Landaredian eta paisaian izango denez eraginik handiena, beharrezkoa da landaredi autoktonoko eremuetako eraginak konpentsatzea, landaredi klimazikora edo heldura eboluzio handiagoa badute. Zentzu horretan, azpimarratu beharrekoak dira erkameziak, artadiak, lizardiak eta abariztiak, adierazten denez 4.099 m<sup>2</sup>-ko azalera hartzen dutenak. Kontuan izan behar da Moreda Araba eta Oion bezalako udalerrietan, intsolazio handia eta udan lehorte garai nabarmena dutenetan, zuhaixka eta zuhaitz autoktonoekiko landaredia galtzea eragin handia dela eta konpentsatu beharra dagoela.

Beraz, eraginak jasangarriak direla uste da, Ingurumen Eraginaren Aitorpen honetan adierazitako neurri babesleak, zuzentzaileak eta konpentsatzaileak hartzen badira, proiektuan eta Ingurumen eraginaren Azterlanean eta bere eranskinetan aurreikusitakoak hartzeaz gain; sustatzaileak aurkeztutako "Gorrebusto, Labraza eta Moreda Araba zonako ureztaketa hobetzeko proiektuaren okupazio areako EUNIS habitaten eta Europar Batasunaren interesekoen ezaugarriak" azterlana barne.

Ingurumen ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeko 40. artikuluari jarraituz, jendaurrean jarrita egoteko tramitea zuzen bete dela uste da, baita Ingurumen eraginaren Azterlana eta bere eranskinak eta azterlan gehigarriak ere. Erasan daitezkeen inguruko elementuak errealitateari doituta eta errealitatearen arabera azaldu dira, eta ingurumen eraginak ebaluatu eta ezaugarriak ateratzeko erabili den metodologia zuzena dela uste da; era berean, obraren ondoriozko faktore eragileak behar bezala hauteman dira.

Azaldutakoa kontuan hartu dut eta Foru Aldundi honetako Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak emandako aldeko txostena ikusi dut.

Foru Aldundiak eskumena du dagokion Ingurumen eraginaren Aitorpena egiteko, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorreko 44.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horrenbestez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, 40. artikuluan ematen dizkidan ahalmenak baliatuz, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuarekin, Ingurumen eta Hirigintza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duenarekin lotuta,

#### XEDATZEN DUT

Lehena. «Gorrebusto, Labraza eta Moreda Araba zonako ureztaketa hobetzeko proiektuaren» Ingurumen eraginaren Aitorpenaren aldeko txostena egin, baldintza hau betez gero:

– Sustatzaileak aurkeztu eta ingurumen organo honek onartu ingurumena zuzendu eta lehengoratzeko proiektua (memoria, baldintzen plegua eta aurrekontu zehatza), ureztaketa hobetzeko eraikuntza proiektuan, ingurumen eraginaren azterlanean eta Ingurumen eraginaren Aitorpen honetan ezarritako jarraibideak eta ingurumen baldintzak dituela. Proiektu honetan definitutako dira ebazpen honetako ingurumen baldintzen E atalean eskatutako neurri zuzentzaileak.

Bigarrena. Ingurumen baldintza lotesle hauek ezartzea proiektua gauzatzeko:

A) Proiektua ebazpen honetako zehaztapenei jarraituta burutuko da, eta ebazpenaren kontra ez dagoen guztian, sail honek proiektuaren ingurumen eraginaren ebaluaziorako aurkeztutako ondorengo agiriek jasotakoari ere bai: lanak egitean proiektuari edozein aldaketa eragiten bazaio, hau da, baldin eta lanak egiteak proiektuaren ezaugarrietan edo ekintzetan gorabeherarik badakar eta ingurumenean espero ziren eraginetan aldaketarik eragiten badu, jakinarazi egin beharko da, bai eta baimena lortu ere, ingurumen organo honek onartu baino lehen.

B) Ingurumen Eraginaren Azterlanean eta dagozkion eranskinetan (I, II eta III) eta proiektuaren agiri teknikoan azaldutako eraginei aurrea hartzeko neurriak eta ingurumena zuzentzekoak hartu beharko dira. Horretarako, sustatzaileak nahitaez egin beharko ditu hala ingurumen eraginaren adierazpen honetan xedatutako ingurumen baldintzei proiektuko egintzak doitu eta egokitzeko beharrezko jarduketak –ureztaketa hobetzeko proiektuaren ingurumen eraginaren azterlanean zehaztutakoen osagarri– nola, proiektua egiteak kaltetuko duen eremuko paisaia eta ekologia egoera osotasunean berritzeko, ingurumen organo honek xedatutakoak. Halaber, ingurua babestearren eta lanek ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izan dezaten, lanak kontratatzeko baldintza orriak ingurumen eraginaren azterlanean eta eranskinetan zehaztutako lanak egiteko ingurumen arloko agindu guztiak jaso beharko ditu, bai eta adierazpen honetan aipatzen direnak ere ingurua babesteko eta obraren ingurumen eraginak txikitzeko.

c) Ingurumen sentikorreko aldeetan, aitorpen honetan aipatutako horietan, proiektua burutzean ukituko diren eremuak zehatz mugatu behar dira eta eremu horien ingurua seinatu behar da. Seinatzeko hori egiten denean, aurrean egon behar dira obraren zuzendaritza nekazaritza garapen zerbitzuaren aldetik, kontratuko obra burua eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuko teknikari bat.

Ingurumen sentikortasuneko eremutzat jotzen dira, txosten honen ondorioetarako, honako hauek:

– Urmaela eta inguruko instalazioak egiteko jarduketa eremua. Hemen sartzen dira: Uraren gehieneko mailak hartuko lukeen azalera eta okupazio-muga, ezpondak, bere inguruan aurreikusitako hodian trazatua, balbulen etxola, proiektatutako sarbideak, eta obra egiteko behar diren instalazio osagarrientzako aurreikusitako kokapenak: Makinak, materialak eta lurrak aldi batean pilatzeko zonak, lanerako pistak eta makinentzako sarbideak, etab.

– Hartuneak egitean erasandako eremuak.

– Hodien sareko gurutzaketa zonak, landaredi naturalez estalitako espazioetan.

D) Proiektuan aurreikusitako eraikuntza lanen ondorioz aldaketak egongo direla aurreikusten den zonetan landaredia lehengoratzeko lanak egin (urmaeleko ezponda, hartuneen eremuak, landaredi naturalez estalitako gurutzaketak), baita obrak erasandako gainerako azaleretan ere, jarduketa hauen arabera esan bezala:

– Lurraren destrinkotze, moldatze eta taxutzea, lur naturalarekiko igarotze eta ukipen guneetan behar bezalako doiketa eta egokitze fisiografikoa lortzeko.

– Kalitatezko landare lurrezko 0,3 metro geruza, gutxienez, gehitu eta taxutzea (zuhaitzak edo zuhaixkak landatuko diren guneetan 0,5 metro, gutxienez). Lur hori urmaelak edo hodiekin hartuko duten eremutik bilduko da.

– Lur lantze eta lur berdintze lanak egitea, eta ondoren xehatzea, lursailak ereiteko eta hidroereiteko egoki prestatzeko, ingurumen eraginaren azterlanean eta proiektuan ezarritako zehaztapenei jarraituz.

– Belarkiak eta egurretarakoak ereitea eta hidroereitea. Obrak erasandako espazioak birlantatzeko erabiliko den ereiteko eta hidroereiteko nahasketak ingurumen organoa honek onartu beharko ditu obran erabili aurretik eta, dagokionean, Arabako Errioxako zona honetako klima baldintzetara eta baldintza edafikoetara egokitutako graminea eta leguminosoen espezieak erabiliko dira, zuhaixka espezieen haziak ere nahastu ahal izango diren arren.

Hidroereitean sartu behar diren gehigarrietariko bakoitzaren beharrezko kopuruak adieraziko dira ondoren:

Ereite aldia

– Ura: 2 l/m<sup>2</sup>

– Haziak: 40 gr/m<sup>2</sup>

– Egonkortzailea: 20-25 gr/m<sup>2</sup>. (maldaren arabera)

– Mulch: Zuntz laburra (60 g/m<sup>2</sup>)

Zuntz luzea (40 g/m<sup>2</sup>)

– Askapen geldoko NPK ongarria (40 g/m<sup>2</sup>)

Estalketa aldia

– Ura: 2 l/m<sup>2</sup>

– Mulch: Zuntz luzea 150 gr/m<sup>2</sup>

– Egonkortzailea: 15-25 g/m<sup>2</sup> (maldaren arabera).

– Zuhaitz eta zuhaixka espezieen landaketak, erasandako eremuaren inguruan forma naturalean dauden espezieekin (*Quercus faginea*, *Quercus ilex subsp. rotundifolia*, *Fraxinus angustifolia*, *Quercus coccifera*). Hartuneko eremu guztietan landatuko dira, landaredi naturaleko aireko hodian gurutzaketan zonetan eta urmaeleko ezponden oinarrian.

E) Zuhaixka eta zuhaitzen landaredia naturalean izandako eragina konpentsatzeko, sustatzaileak neurri zuzentzaileen proiektu bat idatzi eta aurkeztu beharko du ingurumen organoan, onartu dadin. Proiektu horretan definitu beharko ditu gutxienez 8.200 m<sup>2</sup>-ko azalera baten lehengoratzeko ekologiko eta paisajistikorako behar diren jarduketak, eta azalera horren osoko birgaitzea aurreikusitako beharko du, baita erasandako eremuko berezko zuhaixka eta zuhaitz espezieak landatzea ere. Konpentsaziozko neurri hau egiteko hautatu beharreko kokapena Arabako Errioxako eskualdera mugatuko da eta batez ere Oion edota Moreda Araba udalerrietara, ureztaketa hobetzeko proiektu honek hori baitu eragina.

F) Neurri zuzentzaileak eta konpentsaziozkoak hartzean ingurumen birgaitzearen xede izango diren zonetan egin beharreko landaketen ezaugarriak hauek izango dira:

– Zuhaitz espezieen zuloaren gutxienezko neurria: 0,6x0,6x0,6 m. Izerdi bakarreko landarea, landareen arteko distantzia 2 m.

– Zuloa kalitatezko lurrez bete ondoren, azalera txorko bat egingo da; 40 cm-ko erradioa izango du eta ildarteak 10 cm-ko garaiera izango du eta landare bakoitzeko 10 litroko ureztaketa egingo da.

– Landarea bere zurkaintzarekin landatuko da, oinean belarren aurkako plastiko fotodegradagarriko babesa ondo tinkatuta duela; 110 g/m<sup>2</sup> izango du eta gutxienez 2 edo 3 urteko iraupena bermatuko du.

– Landaketetan NPKrekin aberasturiko ongarri organikoa erabiliko da, jaregite geldokoa; hain zuzen ere, 80 gramo jaregingo ditu metro koadroko.

– Landatzeko garaia: azaroa-otsaila.

G) Obrako materiala lortzeko mailegu zonak lanak burutzeko jabetza kendutako zonakoak baino ez dira izango, edo baimendutako harrobietatik ekarriko da material hori. Mailegu material gehiagotarako lekuak hautatu behar izanez gero, ingurumen organo honek baloratu eta txostena egin beharko du.

H) Eraikuntza proiektuan aurreikusitako lur mugimenduek ez dute soberakinik aurreikusten, urmaela egiteko atera den material guztia ezpondak igo, diseinatu eta egiteko erabiliko baita. Dena dela, obrako soberakinen edozein isurketa mota oro edo obrari lotutako beharrezko indusketenak (lurrak barne) egin aurretik baimendu beharko dira eta Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak baimendu beharko ditu eta inoiz ez dira egingo zuhaitzak dauden inguruetan edo ur ibilguetatik gertu daudenetan.

Isurketentzako zaborteak behar izanez gero, hauen kokapen guztiak ingurumena zaharberitzeko programa baten xede izango dira eta hor sartuko da azalera modelatu eta profilatzea, formalki hobeto doitzeko, ingurura fisiografikoki egokitzeko eta azaleko urak zuzen drainatzeko, eskarifikatzeko eta substratua komeni den sakoneran deskompaktatzeko, landare lurra jarri beharko da (gutxienez 40 cm-ko lodierarekin) eta substratua prestatzeko lanak egin beharko dira: lurra landu eta berdindu. Ez bada aurreikusten lurzatiak nekazaritzarako edota abeltzaintzarako erabiltzea, ereite edo hidroereite jarduketak ere egin beharko dira, baita zuhaitz eta zuhaixka espezieak landatu ere.

I) Nahitaz bete beharko dira ibilguak babesteko neurriak eta obran erasandako ibai ertzetako landaredia ordezkatzekoak, dela hartuneen eremuan dela hodian sareko gurutzaketetan, hori guztia Ingurumen eraginaren azterlanean eta eraikuntza proiektuan bertan adierazi bezala.

Neurri hauek hartu beharko dira berariaz zona horietan:

– Ibai ertzetan egin beharreko lanak edo obrak, dela hartuneen eremuan aurreikusitakoak dela sare hidrografikoarekin hodiekin izango dituzten gurutzaketa zonetakoak, hauskortasun handieneko aldiak saihestuz egingo dira eta ondorioz, uda garaian.

– Ur ibilguen inguruan ez da kutsadura sor dezakeen instalazio osagarriarik kokatuko (hondakinak biltzeko zonak, makinak, bilketa zonak, etab.).

– Bide osagarriak egiteko, edozein motatako ibilguen zuzenketa eta kanalizaziorik gabe egin behar dira, ez da zeharkako drainatzea duen lubetarik erabiliko ur ibilguetan gurutzaketak saihesteko eta hainbat ubide ez iraunkorretako drainatzeak ez dira kontzentratuko egitura bakar baten bidez.

– Indusketako materialak egonez gero, horiek uzteko tokiak jabari publiko hidraulikoa saihestuz kokatuko dira.

– Ibaietako landarediari dagokionez, lanak hasi baino lehen zegoen antzeko egoera lortzeko, erriberako berezko espezieez landareztatuko dira lanek eragindako ibai ertzetan. Zuhaitz eta zuhaixkak landatzeari buruzko "G atalean adierazitako baldintzen arabera egingo dira landatze lanak.

– Ibai ertzak babesteko eta ibai eta erreketako ezpondak egonkortzeko egiturak jarri beharra egonez gero (harri lubetak, etab.), inguruan integratuko dira eta hutsuneak landare lurraekin beteko dira; era berean, zuhaitzak, zuhaixka eta belar autoktonoak edo basa belarrak ere erabiliko dira, landareak eta zurkaitzak erabiliz.

– Ibilguetan makinaren eta kamioien mugimendua saihestuko da; horiek nahitaez igaro beharreko tokietan, alde baterako pasabide errustikoak egingo dira.

– Sare hidrografikoarekin egin beharreko gurutzaketetan, makina txikiak erabiliko dira, "lanerako kale" bat erabiliko da, gehienez ere 5 metro zabalekoa, eta obrako materialak biltegitzeko eta lurra eta indusketako materialak pilatzeko kale hori bera erabiliko da edo bere gertuko inguruan egon daitezkeen zuloak edo zuhaitzik gabeko sektoreak, baita inguruetakoko bideak edo pistak ere.

J) Sustatzaileak landareak erabat zaintzeko programa bat abiaraziko du, eta errotzeko eta behin betiko tinkotzeko behar adina denbora iraungo du. Gainera, landatze lanak bukatu ondorengo 2 landatze aldiak ere hartuko ditu gutxienez. Ondoko hauek egitea jasotzen du: ureztatzea (gutxienez 7 ureztaldi urteko), ongarritzea, hutsarteak betetzea eta oineko babesak berriro jartzea, beharrezko laborantza lanak egitea (inausketa, sasi-garbitzea) eta abar. Lan horiek eragindako hondakinak baimendutako zabortegira botako dira.

K) Ingurua itxuraberritzeko erabiliko da, oso-osorik, eraikuntza lanek eragindako zonen indusketatik ateratzen den landare lurra. Zoruaren geruza organikoa era selektiboan kenduko da handik; ahal dela, lehenbailehen berrezartzea hobetsiko da, edo, bestela, metatzea, bestea posible ez balitz. Lur metak gehienez 2,5 metro izango ditu altueran, eta ebakidura trapezoidaleko masatan pilatuko da.

L) Sustatzaileak behar bezala programatuko ditu eraikuntza lanen sekuentzia (obra zibila, lur mugimenduak, etab.) eta obraren ondorioz erasandako azaleretan proiektatutako landareen lehengoratzea (laneko azalera modelatu eta profilatu, landare lurra jarri, substratua prestatu, erein, hidroerein eta landatu), obra zibilak eta aurreikusitako mugimenduak amaitu eta berehala eta elkarren jarraian egin daitezkeen eta jarduketan planifikazioan kontuan izan beharko da landareen tratamendua garai egokietan.

LL) Bateratu egin beharko dira irizpide tekniko-ekonomikoak eta ekologia zein paisaia arloko alderdiak leku hauetan: obrarako materialak biltzen diren tokietan, makineria parkeetan, landare lurren eta indusketen ondorioz sorturiko behin-behineko hondakin biltegietan, instalazioetan eta eraikuntza lanak egiteko beharrezkoak diren beste eraikin osagarri batzuetan. Horretarako, desjabetzapen areatik kanpo proposa daitezkeen edo gera daitezkeen kokapenen berri ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzari eman beharko zaio, eta hark baimendu beharko ditu, egin aurretik.

Aldi baterako instalazio mota hauek ez dira egongo hemengo bertako zuhaitzez landatutako zonetan, ez ur ibilguen ondoko inguruetan, ez eta lur azalera hauetan ere: 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauak, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora kontserbatzeari buruzkoak, duen I. eranskineko Lehentasunezko Intereseko Habitatak edo Europar Batasunaren Intereseko Habitatak dauden lur azaleretan.

M) Obrak egin bitartean, ontzi estankoak, biltegi irazgaiztuak edo lubrifikatzaile zein erre-gaiak biltegiratzeko bestelako sistemak atondu beharko dira; galarazita egongo da erabilitakoak isurtzea, eta baimendutako kudeatzaile bati emango zaizkio. Debeku hori beste hauetara ere hedatzen da: hormigoi hondakinak, eraikuntza materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak hondakin-degi edo zabortegi baimenduetara eraman beharko dira. Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazi bezala kudeatu beharko dira eraikuntzako eta eraiste lanetako hondakinak. Dekretu horrek eraikuntzako eta eraispentako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu.

N) Nekazaritzako eragin sektorialaren azterketa egin du nekazaritza arloko eskumendun organoak eta hor ezartzen denez, erasandako nekazaritza ustiapen guztietara sarbide egokia bermatu beharko da. Sarbide hori esku hartzearen aurretik zeuden baldintza berdinetan egin beharko da, ustiapentako gune guztietan nekazaritza jarduerarekin jarraitzeko behar diren dimentsio eta ezaugarrietako bideak izan beharko dira.

Ñ) Obrak egin aurretik, Euskara, Kultura eta Kirol Sailarekin harremanetan jarri beharko da sustatzaileak obrek dirauten bitartean egin beharreko jarraipen eta kontrol arkeologikoa zehazteko.

O) Historikoki erabilera industrialak jasan dituzten lurzatiei erasaten dieten lana hasi aurretik, lurzorua kalitatea ikertuko da eta langileentzat eta etorkizuneko erabiltzaileentzat lurraren kutsadurari lotutako arriskurik ez dagoela bermatuko da, ezarritako erabileren arabera. Ikerketa hau dela eta, hondarren, eraikinen eta indusketa egin beharreko lurren kudeaketa egokia zehaztuko da hondakinen alorrean indarrean dagoen legediaren arabera, ondorio horietarako Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako mekanismoak eta baldintzak hartuko dira.

P) Proiektuaren funtzionamendu fasean ura hartuko den erreketan (Buenpajera, Horcajo eta Valdevarón) administrazio hidraulikoak ezarritako emari ekologiko etengabea mantenduko da.

Q) Obrak bukatutakoan, garbiketa kanpaina zorrotza egingo da. Proiektuaren eraginpean dagoen arean ez da inolako obra hondakinik geratuko, eta instalazioak eraitsi egingo dira.

#### Ingurumen Zaintza Programa

Obrak egitean eta funtzionamendu fasean proiektuko ekintzen jarraipena egiteko moduari buruz Ingurumen eraginaren Azterlanean adierazitakoez gainera jarraibide hauek ezarri dira.

Sustatzaileak bere gain hartuko ditu honako hauek: adierazpen honetan jasotako kontrolatzeko eta zaintzeko neurriak eta, hasiera batean aurreikusitako ez arren, gero gerta litezkeen hondaketak edo aldaketak zuzentzeko proiektua abian den bitartean aurrera eraman beharreko neurri zuzentzaile osagarriak. Gainera, horiek denak aurrekontuan gogoan hartu beharko ditu, benetan egin ahalko direla bermatzeko.

– Eskumendun erakundeek jarraipena egin beharko dute Valdepaderna Ureztatzaile Komunitateak ureztatzeko uraren emakidan ezarritako baldintzak betetzen dituela ikusteko eta emari ekologiko etengabea mantentzen dela bermatzeko.

– Proiektua burutzeko fasean zaintza sistema bat ezarriko da Buenpajera, Horcajo eta Valdevarón erreketako uraren kalitatean egon daitezkeen balizko gorabeherak hautemateko, obrak erasan egin baitezake erreka horietan, dela makina astunak erabiltzeagatik egon daitezkeen isurketengatik dela lurra mugitu delako edo trafiko astuna dagoelako edo beste arrazoiren batzuegatik urak normalean bano zikinago doalako. Kalitatean narriadura nabarmena egonez gero eta baliabide urtarrentzat eta arrain faunarentzat arriskua egon, zuzentzeko eta aurrea hartzeko neurri egokiak ezarriko dira, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzaren arabera.



– Eraikitzen ari diren fasean eta proiektua abian den lehenengo faseetan ontziaren es-tankotasuna kontrolatzeko programa bat egingo da, horretarako saioak eta probak egingo dira.

– Ustiapen fasean jarraipena egingo da ureztaketa ekipoetan eta urmaelean bertan zebra muskuilua (*Dreissena polymorpha*), espezie inbaditzailea, ote dagoen ikusteko. Espezie hori hautemanaz gero, eskumendun administrazio hidraulikoari eta Arabako Foru Aldundiko In-gurumen eta Hirigintza sailari jakinaraziko zaie berehala, espezie hori ugaltu eta hedatzeko kontrol-neurriak hartu ahal izateko berehala.

– Obrak amaitutakoan, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzara obra amaierako agiria bidali beharko da eta horko erregistroan jasota egon beharko dira eraikuntza lanetan egon-dako ezustekoak, baina Ingurumen eraginaren azterlanean eta bere eranskinetan, Neurri konpentsatzaileen proiektuan, Ingurumen zuzenketa eta lehengoratzeko proiektuan eta Ingurumen eraginaren Aitorpen honetan ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak zenbat bete diren ere.

Era berean, ingurumen eraginaren azterlanean, eranskinetan eta proiektuan zenbatetsi diren aldaketa-aurreikuspenei dagokienez egon diren desbiderapenak antzemateko eta ebaluatzeko txostena egingo du ingurumen organoak. Aurreikusi gabeko eragin negatiboak egon badira edo erasandako azalera hazi bada, Nekazaritza Zuzendaritzak beharrezko neurri zuzentzaileak hartu beharko ditu eta txosten honetan adierazten direnak.

Hirugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra betetzeko, ingurumen eraginaren adierazpenak eragin lotesleak izango ditu hura gauzatzeko neurrietan eta baldintzetan.

Laugarrena. Foru Agindu hau Nekazaritza Sailari eta Valdepaderna ureztatzaileen elkarteari jakinaraztea, dagokion eran jardun dezaten.

Bosgarrena. Ingurumen eraginaren adierazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Gasteiz, 2017ko urriaren 25a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua*  
JOSEAN GALERA CARRILLO

*Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria*  
AMAIA BARREDO MARTÍN